



SOLIC_RRHH APLIKAZIOA MIGRATZEKO ETA FRAMEWORK 2.0 EGUNERATZEKO ANALISI, DISEINU, GARAPEN, PROBA, EZARPEN ETA LAGUNTZAREN ZERBITZU INTEGRALA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN PLEGUAREN KARATULA. ESPEDIENTEAREN ZK.: 3247

Harmonizatuko araubidearen menpe dagoen kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Ireki supersinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Unai Gobantes Herrero
4.- Kontratazioko Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono-zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: Kontratu honen xedea da gaur egun Framework 1.0 delakoan oinarrituta dagoen Giza Baliabideen eskaeren aplikazioa migratzeko analisi, diseinu, garapen, proba, ezarpen eta laguntzaren zerbitzu osoa ematea eta Framework 2.0 eguneratzea. 2.- Bete beharreko premiak: Framework 2.0 berriaren helburua da web-aplikazioak eguneratzea eta lanerako idazmahai bakarrean txertatzea. Zerbitzuak ziurtatu beharko du migratutako aplikazioa funtzionalki jatorrizkoaren baliokidea izatea eta Framework 2.0 berriaren gaitasunak eguneratu eta optimizatuko direla. Garapen guztia BBUPk emandako azpiegitura teknologikoan egingo da. Framework 2.0 delakoaren lehen fasea garatu ondoren, aplikazio erreal batean aplikatu behar da: kasu honetan, giza baliabideei zuzendutako eskaeretan. Aplikazio hori garapen-ingurune berrira egokitzeaz gain, Framework 2.0 delakoaren funtzionaltasunak eguneratuko dira, dauden funtzionaltasunak arazteko eta optimizatze aldera. 3.-Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Egin beharreko garapenak gatazkan sar litezke maila funtzionalean eta berme-mailan; beraz, ez da lotetan banatuko, baldin eta kontrata desberdinek aldi berean jarduten badute kode edo garapen-plataforma berean.
4.- CPV: 71356200-0 Laguntza teknikoko zerbitzuak.
5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐ BAI ☒ EZ
6.-Izaera juridikoa ☒ Administratiboa ☐ Pribatua



C.-KONTRATUAREN PREZIOA	
1.-Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)	EHUN ETA HIRUROGEITA BOST MILA EURO (165.000,00 €), BEZik GABE.
2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 181.500,00 euro Loteak: ☐ BAI ☒ EZ Balio zenbatetsiak barne hartzen du gauzatu beharreko ale-kopurua handitzea, kontratuaren prezioaren % 10eraino, SPKLren 309. artikuluan ezarritakoaren arabera, zeina ez baita aldaketatzat hartuko.	
3.-Prezioa zehazteko sistema: ☐ Honenbesteko prezioa ☒ Unitate-prezioak	
4.-Urteko kopuruak eta aurrekontu-kontsignazioa: Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira: - 2026. urteko PARTIDA: 92005.22707 ZENBATEKOA: 82.500,00 euro, BEZik gabe. - 2027. urteko PARTIDA: 92005.22707 ZENBATEKOA: 82.500,00 euro, BEZik gabe.	
5.-Prezioak berrikustea: ☐ BAI ☒ Ez	
6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea: ☐ BAI ☒ EZ	
7.-Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez.	
8.-Ordainketak kontura: Ez da aplikatu behar	

D.-KONTRATUAREN EPEA
1.-Iraupen osoa: HAMABI (12) HILABETE.
2.-Epe partzialak. ☐ BAI ☒ EZ
3.-Luzapena ☐ BAI ☒ EZ
4.-Berme-epea: 12 HILABETE
5.-Kontratua betetzeko tokia: BBUPren instalazioak
6.-Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK
Behin betiko bermea: % 5 Zenbatekoa: Adjudikazioa ☐ Berme osagarria: Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA
Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren urteko batez besteko kuota bezainbeste izan beharko da gutxienez behin. (165.000,00 €)



G.-KAUDIMEN TEKNIKO ETA PROFESIONALA

- Kaudimen teknika edo profesionala egiaztatzeko, azken hiru urteetan egindako zerbitzu nagusien (kontratuaren xede diren berberak edo antzekoak) zerrenda aurkeztu beharko da, eta gauzatze handieneko urtean haien zenbateko metatua urteko kontratuaren urteko bestez besteko kopuruaren % 70 edo gehiago izango da. (115.500,00 €)
- Lantaldeari dagokionez, **baldintza tekniko berezien pleguko 8. puntuko ("BALIABIDE TEKNIKOAK ETA GIZA BALIABIDEAK") A apartatuan ("Lantaldearen osaera")** profil bakoitzerako eskatutako erantzukizunak, betekizunak eta esperientzia bete beharko ditu.
- Ziurtagiria arau/eredu hauetan: · ISO 27001 · ISO 9001 · ISO 14001

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknika:

Kaudimenean eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietarako. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.

LANBIDE-GAIKUNTZA

Ez da aplikatu behar

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, hautazkoa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.
- 2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen arabera irizpideen dokumentazioa.
- 3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA

- Memoria teknika eta gauzatze-metodologia.
- Kontraturako jarritako bitarteko teknikoak. Kontratuari esleitutako langileen curriculumak zehaztu behar dira.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailerak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da l. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

- a) Prezioen zerrenda. Lizitatzailerak apartatu honetan zehazten diren prezio unitarioak adierazi beharko dituzte:



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Unitate-zk.		Kontzeptua	Eskaintako prezio unitarioa - €	Eskaintakoa, guztira - €
1	100 ordu urte bakoitzeko	Proiektuburu bat		
2	1700 ordu urte bakoitzeko	Analista programatzaile bat		
3	1700 ordu urte bakoitzeko	Analista programatzaile bat		

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-baldintza berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Kontratazio-mahaia

Presidentea:

Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.

Xabier Orue Moro jauna.

Itziar Zarate Urrutia andrea.

Gerardo Latorre Pedret jauna.

Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax 50 puntu
(Bmax + BM) / 2 48 puntu
BM 47 puntu



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

0,8 x BM.....	46 puntu
0,6 x BM.....	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua.....	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < Bi \leq 0,8 \times BM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < Bi \leq BM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < Bi \leq (BM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BM)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BM - Bmax)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU

1. Memoria tekniko eta gauzatze-metodologia. 25 puntu

- Proposamen tekniko kontratuaren xedeari egokitzea: 15 puntu
- Gauzatze metodoa.



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Lan-plana.
- Zerbitzuaren kalitatea eta arauak betetzea.
- Irtenbidearen ikuspuntu zehatza.
- Zerbitzua ematearen irismena (10 puntu).
- Zerbitzuen deskribapena
- Zerbitzu-mailak.

2. Kontraturako jarritako bitarteko teknikoak. 25 puntu

- Kontratuari esleitutako bitarteko teknikoak eta antolakuntzakoak (20 puntu)
- Taldearen antolamendua (5 puntu)

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarateratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- d) Zozketa egingo da, aurreko irizpideekin berdinketa hautsi ez bada.

3.- Ohi baino baxuagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino baxuagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzailerak bakarrik dagoenean eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Bi lizitatzailerak daudenean, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Hiru lizitatzailerak daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan gainditzen duten eskaintzak badaude, batezbestekoa kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berria ezartzea eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde bereko enpresen eskaintzak aurkeztean badira, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren eskaintzak identifikatzeko araubidean, bakar-bakarrik hartuko da kontuan eskaintzarik baxuena, eskaintza banaka edo taldekoak ez diren, baina aldi baterako elkarte gisa jarduten duten beste enpresa edo enprekin batera aurkeztea gorabehera.

4.- Lizitatzailerak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezkoa den gutxieneko atalasea:

Baztertze arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

ESKaintza baztertze ez-betetze teknikoak

- Baldintza tekniko berezien pleguan eskatzen diren ezaugarri teknikoak ez betetzea.
- Proiektuari esleitutako teknikariak eta beharrezkoak diren baliabide teknikoak ez eskaintzea, plegu teknikoko BALIABIDE TEKNIKOAK ETA GIZA BALIABIDEAK deritzon



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

puntu A apartatuan ("Lantaldearen osaera") eskatutako erantzukizunen, eskakizunen eta esperientziaren arabera.

- Eskatutako dokumentu teknikoren bat ez aurkeztea

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

Epeak ez betetzea:

1. Baldintza teknikoen pleguaren mantentze-lan zuzentzaileekin lotutako gorabeherak konpontzeko epea ez betetzea.

Zigorak: Kontratuaren prezioaren % 1, hilero eta garaiz kanpo konpondutako gorabeheren % 10 bakoitzeko.

Kontratua suntsiaraztea: Aurreko zigorrak batera hartuta kontratuaren prezioaren % 10era iristen direnean, BBUPk kontratua eten ahal izango du.

2. Baldintza teknikoen pleguaren bilakaeraren edo egokitzapenaren mantentze-lanekin lotutako aldagetak ezartzeko gehieneko epea ez betetzea.

Zigorak: kontratuaren prezioaren % 0,5 atzeratutako aste bakoitzeko.

Kontratuaren xede den zerbitzua gaizki betetzea

1. Entregatzea BBUPk zehaztaperen teknikoen arabera eta erabilera-kasu bakoitzerako planifikatutako amaiera-dataren arabera garatu ez direla uste duen garapenak.

Zigorak: Kontratuaren prezioaren % 1, garapenak behar beste egiaztatu gabe igarotzen den aste bakoitzeko.

2. Informazioa edo datuak galtzea, eta kontratuak irauten duen bitartean landutako proiektuetan gordetako informazio sentikorrerako sarbidea urratzea.

Kontratua suntsiaraztea: BBUPk kontratua suntsiarazi ahal izango du.

3. Kontratua indarrean dagoen bitartean eskuratzen den informazioari buruzko konfidentzialtasun-betebeharra ez betetzea.

Kontratua suntsiaraztea: BBUPk kontratua suntsiarazi ahal izango du.

Kontratua gauzatzean betekizunak ez betetzea

1. Adjudikaziodunari zor zaizkion arrazoiengatik erabilera-kasu bat entregatzen ez bada, eskainitako zenbatekoaren % 80ko zigorra ezarriko da.

2. Epeak ez betetzea: Erantzutako denborak eta zerbitzu-mailako akordioak behin eta berriz ez betetzea hutsegite larritzat hartuko da. Zerbitzuaren funtzionamenduari kalte egiten dioten atzerapen esanguratsu edo luzeen kasuan.



M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK

3. Eskaintzan aurkeztutako lantaldearen osaera ez betetzea, eskatutako gaitasunari eta esperientziari dagokienez, hutsegite larritzat hartuko da. Kontratistak eskaintako lantaldea mantendu beharko du kontratuak irauten duen bitartean, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik, eta erakunde kontratatzailearen alde aurreko baimenarekin.

Kontratua suntsiaraztea: BBUPk kontratua suntsiarazi ahal izango du.

Zigorrik izan bada, ateratzen den zenbatekoa emandako fakturaren zenbatekotik deskontatuko da.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasierako ekarpenaren obligazioa ☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI
☐ EZ

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Kontratista adjudikaziodunak obra honetara atxiki beharko du ordezkari bat, eta kontratistaren izenean jarduteko edo berau ordezkatzeko behar besteko ahala izan beharko du kontratu-harreman guztian.